

HIRI HONDAKIN SOLIDOEI BURUZKO HEZKUNTZA MATERIALAK

1

## AURKEZPENA. SARRERA

### Aurkezpena

Jarraian dauden orrialdeetan hezkuntza material batzuen proposamena aurkezten dugu eta, honekin batera, Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroak dinamizatzen duen Nafarroako Hondakinen Mankomunitateen, Nafarroako Gobernuaren eta Ecoembesen artean adostutako lankidetzaren hitzarmena. Lankidetzaren prozesu hau, Ecoembes eta Nafarroako Komunitate Foralaren artean sinatutako esparru-hitzarmenean txertatzen da.

Proposamen honen planteamenduak hitzarmenaren lehenengo urtean egindako lanari eta Aholkularitza teknikoan planteatutako helburu batzuei erantzuten die.

- ✓ Bilketa selektiboari buruzko kudeaketa eta komunikazio sistemei buruzko informazio bilketa eta hartu-emana.
- ✓ Egoera diagnostiko bati eta Mankomunitate sare baten funtzionamendua erraztuko dituen lan proposamen batzuei buruzko planteamendua hurrengo gaitasunak garatzeko:
  - \* Ecoembesek eta Nafarroako Komunitate Foralak sinatutako esparru-hitzarmenean txertatutako talde kanpainak zehaztea.
  - \* Komunikaziorako, sentsibilizaziorako, hezkuntzarako eta gizartearen partaidetzarako beste ekimenak garatzea.
  - \* Parte hartzen duten erakundeen artean konpromisoak eta praktika onak sustatzea.

Horretarako, 2006 eta 2008 urte artean garatzeko ekintza plan bat ebatzi da zeinaren barnean hezkuntza materialak, hondakinei buruzko tailerrak (murrizpena, bilketa selektiboa, birziklapena ...) aurkezten ditugun, Nafarroan sortzen diren hondakinei buruzko erakusketa batekin batera.

### Sarrera

Etxeko hondakinen, edo Hiri Hondakin Solidoen (HHS) tratamendu eta desagertaraztea, azken urteetako ingurumen arazo eztabaidatuenetako bat da. Jakina da hiri bateko biztanle bakoitzak egunean hondakin kilo bat baino gehiago sortzen duela. Gainera, kantitate hau hazten doa, inongo trabarik gabe, azken hamar urtetan, Europako herrialdeetan hondakin bolumena "per capita" 60% bainan gehiago handitu da.

Eskutan duzun txostena hau hiri hondakin solidoen arazoa lantzen duen hezkuntza material bat da.

Material hau ikastetxeek erabil dezakete, ikasturteko programazioari atxikirik edo, ingurumen sentsibilizazio edo hezkuntza jarduera moduan, edozein talde edo elkartek.

Kanpo laguntzarik gabe erabiltzeko diseinatu dira, hau da, irakasle batek edo pertsona arduradun batek, talde antolatuen kasuan, jardueren garatze lanak beregain har ditzake.

Formatu digitalean eskaintzen dira erabiltzaileek interesgarriak dituzten atalak soilik inprimatu ahal izateko.

Programak modu praktikoa eta dibertigarria lantzen du planteatutako gaia eta, bertan, ikasleak informazio bilaketan eta ikerketan protagonista izango dira.

Hezkuntza materiala lau zatitan banatzen da:

- ✓ **Irakasleentzako hezkuntza orientabideak:** helburuak, edukiak, metodologiak, sekuentzia proposamenak eta ebaluazioa.
- ✓ **Jarduera fitxategia:** fitxa bakoitzean jardueraren deskribapena, beharrezkoak diren materialen zerrenda, laguntzarako informazioa e.a. atxikitzen dira.
- ✓ **Informazio txostena:** programa garatzeko informazio erabilgarria dago.
- ✓ **Mankomunitate bakoitzaren informazio espezifikoa:** hezkuntza materialak lantzen direneko ikastetxeari dagokion mankomunitateari buruzko informazioa dago.